



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 13a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).

—Foru Lege proposamena, Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena. Proposamena erretiratzea (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, enpleguaren arloko politika orokorrari eta IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa. Jabeldura erretiratzea (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ministerio eskudunen jarduketa bultza dezan, 2013ko uholdeek kaltetutako herriei laguntzeko beharrezkoak diren neurriak hartze aldera. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua dezan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eginiko lana eta beharrezkoak diren ekimen guztiak proposa ditzan hura garatu eta sustatzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuetan manten dezan “Emakumeen elkartentzako transferentziak” izeneko kontusaila. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urgentziazko protokolo bat presta dezan haurren pobrezia prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitie “Trelleborg Inepsa” enpresako langileei, enplegua mantentze aldera aurrera daramaten borrokan. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egonezina adierazten baitu Argentinak produktu fitosanitarioen sektorean duen jokabidea dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu arbuiatzen duela Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa izenekoaren aurreproiektua, eta Espainiako Gobernuak premiatzen baitu erretira dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak jarduketarik aurreikusi ote duen osasun garraioaren funtzionamendu normala ziurtatzeko, NA-121-A errepidean izandako luiziak kaltetutako eskualdeetako osasun larrialdiei dagokienez, Marisa De Simón Caballero andreak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikako langileen osasun arretari buruzko hitzarmenaren egoeraren gainekoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (19. or.).
- Galdera, jakitekoa zer berri duen Nafarroako Gobernuak Europar Batasuneko aurrekontuan gazteen enplegua sustatzeko sorturiko diru-horniduraren kudeaketari buruz, zeinetik Espainiak zati handi bat jasoko baitu, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2013ko martxoaren 27ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Testuaren artikulua bakarria aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

Artikulu bakarria. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu-araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari hamargarren xedapen gehigarri gehitzea.

Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu-araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio, testu hau izan dena:

«Hamargarren xedapen gehigarria. «Konpromiso sozialeko proiektuaren» zigilua lortzen duen proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak.

1. Gizarte politiken arloan prestigio handikoak diren pertsonak osatutako batzorde bat sortuko da. Batzordeak bost kide izanen ditu: bi Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuak proposatuak, eta gainerakoak Nafarroako Parlamentuak proposatuak.

Batzordeak bere eginkizunen artean izanen du teknikoki ebaluatzea garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloko jarduerak gauzatzen dituzten proiektuak, ezarriko diren eraginkortasun-, efizientzia- eta gardentasun-baldintzak betetzen dituztenak, eta horiek «konpromiso sozialeko proiektuak» direla jotzea.

Eskaera egindako entitateei Batzordeak proposatzen ahalko die aurkeztu dituzten proiektuetako batzuk fusioatzea; ikusten bada, betiere, proiektu horietan badirela batera exekutatzeko komeniko iratekeen alderdiak.

Proiektuak fusioatzeko erabakia eskaera egi- ten duten entitateena izan da, eta Batzordearen horrelako gomendioak ez onartzea ez du inongo ondorio negatiborik izanen.

Batzordearen erabakiak lotesleak izan dira.

Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuak, Batzordearen irizpideei jarraikiz, «Konpromiso sozialeko proiektuaren» zigilua eman du.

«Konpromiso sozialeko proiektuaren» zigilua lortzen duten proiektuak Gizarte Politiketako Batzordeari igorri eta aurkeztuko zaizkio, onetsi eta hiru hilabeteko epean gehienez ere, informatzeko zer ezaugarri jo diren erabakigarritzat kalifikazio hori emateko.

«Konpromiso sozialeko proiektuaren» zigilua ematen duen ebazpenean zehaztuko da irabazi- asmorik gabeko zein entitatek gauzatuko duen kasuan kasuko proiektua, bakarka nahiz beste batekin edo batzuekin elkarlanean.

Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako kontseilariak foru agindu bidez zehaztuko ditu aipatutako baldintzak, eraginkortasun, efizientzia eta gardentasunekoak, bai eta «konpromiso sozialeko proiektuaren» zigilua lortzeko prozedura ere»

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute dohaintzan emandako zenbatekoen ehuneko 40 kentzeko zergaren kuotari, kopuruak ezeztazekin, garbiak eta soilak baldin badira, baita aurreko ataletan aipatutako entitateekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoen portzentajea bera ere, proiektu horiek finantzatzeko erabili badira.

Kenkarien oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 64. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen den mugaren ondorioetarako kontatuko da.

3. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek diru-dohaintzak egiten badituzte, ezeztazekin, garbiak eta soilak, edo, aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren lankidetzaren hitzarmenen ondorioz, diru-kopuruak eskudirutan ordaintzen badituzte aipatutako proiektuen finantzaketarako, honako onura fiskal hauek izanen dituzte:

a) Zerga-oinarria zehazteko, ordaindutako zenbatekoak kengarritzat hartuko dira.

b) Horrez gain, kuota likidoari zenbatekoaren ehuneko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

Zerga-oinarriari kendu ahal zaion zenbatekoak ez ditu muga hauek altuena gaituzte:

– Murrizketa hori eta, kasua bada, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluek aipatzen dituztenekin aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30.

– Negozio zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 3.

Bestetik, kuotaren kenkaria sozietateen gaineko zergari buruzko foru legearen 72. artikuluan 3., 6. eta 7. idatz-zatietan ezarritako araubidearen eta mugen arabera aplikatuko da.

Atal honetan araututako onura fiskalak ez zaizkie inola ere aplikatuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboiei.

4. Bateriaezina izanen da xedapen gehigarri honetan araututako onura fiskalak eta foru lege honetan ezarritako gainerakoak zenbateko berberetarako jasotzea.

5. Aurreko 2. eta 3. ataletan aurreikusitako onura fiskalak aplikatzeko, ekarpenen eta dohaintzen entitate onuradunek beharkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Behar diren egiaztagiriek frogatu beharko dute ekarpenak eta dohaintzak egiazkoak direla,

eta benetan erabili direla “konpromiso sozialeko proiektu” bat gauzatzeko.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilariak foru agindu bidez arautuko dituen entitate onuradunek luzatu beharreko egiaztagiri horien edukia eta ezaugarriak.

b) Emandako egiaztagirien edukia jakinarazi beharko diote zerga arloko administrazioari, tributuaren gaineko arauetan ezarritako eredu eta epeekin».

Zioak: Konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzeko Lege proiektuak zigor emateko baldintza jartzen du proiektuek bete ditzatela foru aginduz gero batean ezarriko diren eraginkortasun-, efizientzia- eta gardentasun-baldintzak.

Erakundeei eraginkortasuna, efizientzia eta gardentasuna eskatzen zaie beren proiektuei zigor emateko. Iruditzen zaigu baldintza berek gidatu behar dutela Administrazioak sustatzen duen eta haren babespean egiten den prozesu guztia: balorazio teknikoa, baremoak eta proiektua konpromiso sozialekoa dela jotzea.

Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu zer irizpideren arabera “sarituko den” zigor horrekin; are gehiago, kontuan hartuta onura fiskalak lortzen dituzten subjektu pasiboak direla erabakiko dutenak zer egingo den eta zertarako erabiliko diren laguntza ekonomiko horiek, Gizarte Politiketako Departamentuaren erabakimenez kanpo.

Uste dugu konparaziozko bidegabekeriak ez egiteko, karitate pribatuaren eredura ez itzultzeko edota zalantza nahiz konfiantza eza eragin ditzaketan erabakiak ez hartzeko, gakoa dela proiektuak modu objektiboan baloratzea, irizpide teknikoak erabiliz.

Azaldutako arrazoiengatik, uste dugu prozesuaren gardentasuna ziurtatzeko formularik hobereana batzorde bat sortzea dela, gizarte problematika ezagutzen duten pertsonen osatua. Batzorde horrek, Gizarte Politiketako Departamentuak eta Nafarroako Parlamentuak proposatua, ezaugarri nahitaezko bat behar du: hartzen dituen erabakiak lotesleak izan behar dute.

Zuzenketa sinatu dugun parlamentu-taldeek, ikusita zein larria den egoera, sortu den larrialdi soziala eta Nafarroako Gobernuak ez dela gai egoki finantzatzeko Ongizatearen Estatuak hartzen dituen ekintza eta politika guztiak, uste dugu Konpromiso Sozialeko Proiektuei aplikatzekoak zaizkien Pizgarri Fiskalak arautzeko Foru Lege proiektua aldi baterako neurri bat dela.

2. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Hamargarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiko 1. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«1. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua eman ahal izanen die komunitatetik antolatzen diren proiektuei, hain zuzen ere gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloko jarduerak gauzatzeko dituzten proiektuei, baldin eta betetzen badituzte ezarriko diren eraginkortasun-, efizientzia- eta gardentasun-baldintzak».

Zioak: Programak egiteko esparrua zehaztea komeni da, Nafarroako Gobernuak berak proiektua aurkeztean aipatu eta azpimarratu zuen moduan.

3. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Hamargarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa; hona 4. lerrokada izanen denaren testua:

«Foru aginduan, halaber, zehaztuko da elkartasuneko zer programa eta proiektuak izanen duten aukera “Konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua lortzeko».

Zioak: Arrazoizkoa da “Konpromiso sozialeko proiektuaren” zigiluaren ematea arautzen duen foru aginduak zehaztea, orobat, zer jadaketa sar daitezkeen hor.

4. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Idatz-zati bat, seigarrena, gehitzeko zuzenketa.

“6. Gizarte Politiketako kontseilariak, urtero, ekainaren 30a baino lehenago, aurreko urteko emaitzei buruzko oroitidazki bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, non, gutxienez, finantzaketa lortu duten proiektuen zerrrenda eta horien zenbatekoa jasoko den, bai eta onura fiskalen zenbatekoa ere, figura tributarioka eta kontzeptuka xehakatu».

Zioak: Sektore pribatuaren jokabide edo ekin-tza jakin batzuk sustatzera bideratutako pizgarri fiskalak erabiltzea justifikatuta egon daiteke, baina ez da bistatik galdu behar zer baliagarritasun duten benetan eta zer eragin duten diru-sarrerara publikoetan. Era berean, beharrezkoa da pizgarri horien ebaluazio etengabe bat, pizgarrion baliagarritasunak denboran zehar izan duen bilakaera aztertzeko, eta, horrela, modua izanen da onura fiskal horiek doitzeko, handitzeko edo, kasu bada, kentzeko.

Era berean, jotzen da egokia dela Parlamentuak informazio hori ezagutzea, bere jarduna zorrotasun handiagoz gauza dezan.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek foru lege proposamen hau aurkeztu dute: "Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin foru lege proposamen hau: "Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako".

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako

ZIOEN AZALPENEA

Lege horren 15. g) artikulua onesteak zalantza ugari sortu zituen Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki ogasunek parte hartzeko funtsaren ekarpen ekonomikoen izaera juridikoari eta banaketa-irizpideei buruz; are gehiago, zalantzan jarri zen toki entitateen –hau da, Administrazioaren mailetako baten– autonomia finantzarioa bera.

Halaber, aipatu artikulua, zeinak lege-oinarri kaskarra baitu, funts horien galera dakarten zehapenak ezartzen ditu, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Legean, beste lege batzuk ez betetzearen kasurako, nahiz eta lege horietan ez den ezartzen urratzeagatiko zehapenik.

Apirilaren 9an, Nafarroako Kontseiluak irizpena eman zuen, eta bertan esaten da abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen 15. g) artikulua izan daitekeela Konstituzioaren 140. eta 141. artikuluen aurkakoa.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko foru lege proposamena aurkeztu du:

Artikulu bakarra.

Kendu egiten da Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldieta-

rako ezartzen dituen abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen 15 g) artikulua.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko Foru Lege proposamena, Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena, erretiratu izanari degokio-

nez. Foru lege proposamen hori 2013ko martxoaren 18ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, enpleguaren arloko politika orokorrari eta IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa.

JABELDURA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura erretiratu izanari dagokionez. Jabeldura enpleguaren arloko politika orokorrari eta IV. Enplegu Pla-

naren luzapenari buruzkoa zen, eta 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatzi eta abian jar dezan.

Historian zehar, bai musika kultura bai herrikoia nabarmen landu diren lurraldea izan da Nafarroa. Hori horrela izan bada aurreko mendeetan, XX. mendean loraldi are oparagoa izan zen; besteak beste, arrazoi hauengatik: musika erlijiosoaren autoreen ugaltzea, kontserbatorioen sorrera eta abesbatzen ugaltzea lurralde osoan zehar, eta hezkuntza eta kultura herritar ororen eskuragarri egotera iristea.

Hala ere, autore horiek ez dira beti ezagunak izan, eta are gutxiago baloratuak eta ezagutaraziak. Eta hori aplikatzen zaie bai herritarrei, oro har, bai, bereziki, agintari publikoei. Horren adibide bat: duela gutxi zenbait musika-taldek berriki hil den autore entzutetsu Pascual Aldaberi eginiko omenaldian ez zen agintaririk agertu.

Horren garrantziaren erakusgarri, bizi zirela merezi zuten aintzatespena jaso gabe duela gutxi hil ziren Lorenzo Ondarra eta Pascual Aldaberen izenei gehitu behar zaizkie José María Goicoechea eta Luis Bacaicoarenak, Kulturaren Vianako Printzea Saria jasotzeko aurkeztuak izan zirenak.

Hori dela eta, Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko xedearekin, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan. Plan horrek ondoko ekimenak jasoko ditu, gutxienez:

a.- Nafarroako musika-taldeekin sinatutako hitzarmenetan jasotzea Nafarroako autoreen musika interpretatzeko betebeharra, bidezkotzat jotzen den moduan.

b.- Beka bat sortzea, Nafarroako Gobernuak sustatutako deialdien barruan, Nafarroako musikariek zerikusia duen alderdiren bat aztertzeko: haien bizitza, ibilbide artistikoa edota obraren bat.

c.- Nafarroako musika entitateen eskuragarri jartzea Foru Komunitatean mendeetan zehar izandako musikari nagusien partitura adierazgarriak. Lan horretan parte hartu ahalko lukete bai partitura horiek dauzkaten entitateek, bai Nafarroako Kulturaren Kontseiluko Musika Batzordeak, elementu koordinatzaile gisa.

d.- Lorenzo Ondarraren eta Pascual Aldaberen ibilbideak aintzatestea, egokien jotzen den moduan, XX. mendearen amaierako eta XXI. mendearen hasierako autore garrantzitsuenetako bi baitira.

e.- Musikari buruzko monografia bat egiteko enkargua egin eta argitaratzea Nafarroa sailean, Historia, Geografia edo Etnografiakoak egin diren moduan.

f.- Bidezkotzat jotzen diren ekintza guztiak, proposatutako xedea betetze aldera; hain zuzen, Nafarroako musikarien eta haiek eginiko sorkuntza-lanaren ezagutza eta estimua areagotzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu plana irailaren 30a baino lehen aurkez dezan Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean, han jasotako jarduketetako batzuk aurreikuste aldera 2014ko aurrekontuan eta erkidegoko musika-entitateekin sinatu beharreko deialdi eta hitzarmen berrietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 29an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ministerio eskudunen jarduketa bultzatzean, 2013ko uholdeek kaltetutako herri- ei laguntzeko beharrezkoak diren neurriak hartze aldera.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita ministerio eskudunen jarduketa bultzatzean, 2013ko uholdeek kaltetutako herri-
ei laguntzeko beharrezkoak diren neurriak hartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da 2013ko uholdeek kaltetutako herri-
ei laguntzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Iragan neguan Nafarroan izandako eurite handien ondorioz –zenbait tokitan, erregistro plubiometrikoak batez bestekoak baino %50 handiagoak izan dira–, Arga, Aragoi eta Ebro ibaiak gainezka egin zuten. Kaltetutako herriak izan dira, besteak beste, Arguedas, Berbintzana, Buñuel, Cabanillas, Cadreita, Castejón, Cortes, Faltzes, Fontellas, Funes, Fustiñana, Milagro, Miranda Arga, Azkoién, Ribaforada, Valtierra, Alesbes eta Tütera.

Alor eta laboreei dagokienez, kaltetutako hektarea kopurua 15.000tik gorakoa izan daiteke, datuak oraindik ere behin-behinekoak badira. Goraldi eta uholdeen ondorioz izandako kalteak laboreei eragin diete nagusiki, baina hesi hidraulikoak eta ubideek berek ere kalteak izan dituzte, eta moldaketa-lan desberdinen beharrea daude.

Ibaietako eta ibai-bazterretako jarduketak Administrazio Publikoaren maila desberdinen eskumenekoak dira, hala nola tokikoa, erkidegokoa, arrokoa eta Estatukoa. Horren ondorioz, beharrezkoa da entitate guztien koordinazioa eta parte-hartzea, bakoitzaren eskumenean eta arduen arabera.

Nafarroan izandako azken uholdeek berriro jarri dute agerian urtegiak duten garrantzia uholdeak saihesteko. Esako eta Itoizko urtegiak ahalbidetu dute ur-emarién puntu gorena segundoko 1.000 metro kubikotik gora murriztea, eta horren ondorioz kalteen heina eta kaltetutako azalera mugatu ahal izan da.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Ministerio eskudunen jarduna susta dezan, 2013ko uholdeek kaltetutako herri-
ei laguntzeko beharrezkoak diren neurriak hartze aldera.

Bereziki, Barne Ministerioak, Babes Zibil eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, bidezkoak diren prozedurak arinduko ditu martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera ordaintzekoak diren kalteen zenbatespena izapidetze aldera, eta izapidetuko du aipatu errege dekretuaren babesean bidezkoak diren laguntza eta diru-laguntzak ematea.

2. Gaitu dezan, aurrekontuek ahalbidetzen duten neurrian, kontusail bat Ebroko Konfederazio Hidrografikoarentzat, azken hilabeteotan izandako uholdeen ondorioz kaltetutako azpiegituren konponketa bere gain har dezan.

3. Ebro ibaiaren arroko ibaien ubideak zenbait tokitan garbitu eta dragatzeko lanei dagokienez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez, tokien eta lan-egutegiaren zehaztapena egin dezan, eta, era berean, lan horiek gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduketak erraztu eta baimendu daitezzen ingurumenaren ikuspuntutik.

4. Esako urtegia handitzeko lanak azkar ditzan, ona izanzen baita Nafarroako Foru Komunitatean aurrerantzean izan daitezkeen uholdeen eragina txikitzeko, urgentziatzko beste arrazoi batzuen artean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ebalua dezan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eginiko lana eta beharrezkoak diren ekimen guztiak proposa ditzan hura garatu eta sustatzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ebalua dezan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eginiko lana eta beharrezkoak diren ekimen guztiak proposa ditzan hura garatu eta sustatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ebalua dezan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eginiko lana eta beharrezkoak diren ekimen guztiak proposa ditzan hura garatu eta sustatzeko.

Historikoki, ondarearen zaintza Vianako Printzea Erakundearen eginkizuna izan da eta bere bereak dituen lanetako bat izan da. Hala ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa sortu zuen 2000n, erai-kin monumentalen zaintza eta zaharberritzea sustatu eta kudeatzeko. Fundazio horrek nortasun juridiko propioa du, Nafarroako Zuzenbide Zibilarren Bildumako 43.6 Legean ezarritakoaren arabera (fundazioaren estatutuen I. tituluaren 1. artikulua).

Hona helburu nagusiak:

a.- Interes Kulturalako Ondasun deklaraturako ondasunak babestu, kontserbatu, berreskuratu, ugaritu, ikertu, zabaldu eta hurrengo belaunaldien esku jartzea, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen oinarri diren printzipioekin bat.

b.- Edozein pertsona fisiko eta/edo juridiko, publiko eta/edo pribaturengandik baliabide ekonomikoak lortzea, edozein eratako diru-laguntzen edo laguntzen bidez, beharrezkoak baitira fundazioaren xedeak egoki gauzatzeko.

c.- Fundazioaren xedeak herritarren artean zabaltzea, Nafarroako Ondare Historikoa hobeki ezagut dadin.

d.- Fundazioaren xedeak garatzen lagunduko duten zabalkunde, ikerketa eta prestakuntza programak sustatu eta prestatzea.

e.- Xede horiek guztiak betetzen lagunduko duen beste edozein jardura.

Fundazioaren webgunean bertan aipatzen dira funtzionamenduan daraman 13 urte hauetan eginiko lanaren ezaugarri batzuk. Hauek dira:

“Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak lankidetzak hitzarmen bat dauka sinatuta fundazioarekin, azken honen funtzionamendua ziurtatzen duena; hala ere, aipatu arintasunaren mesedetan, posible da ekimen pribatuko diru-ekarpenak ere onartzea. Hala, fundazioa funtsezko erakunde gisa agertzen da ahaleginak batu eta koordinatzeko garaian, kudeaketarako, kontrataziorako eta bere funtsen administraziorako autonomia baitu, bai eta gauzatu behar dituen proiektuak hautatzeko askatasuna ere. Hala eta guztiz ere, eta logikoa denez, kontuan hartuta lan horien garrantzia, zaharberritze lanetan ezinbestekoa da Administrazioarentzat lan egiten duten teknikari espezializatuen aholkularitza, kontrola eta zuzendaritza izatea. Hori dela eta, bada patronatu bat, departamentuko kontseilari titularra buru duena, eta, harekin batera, Administrazioako kargu nagusiek eta esku-hartzeen izaerarekin zerikusia duten funtzionario teknikoek osatzen dutena.

Fundaziotik eskainitako lan-formulak ahalbidetu du sortu zenetik igarotako zazpi urteetan beste

hainbeste esku-hartzeri ekitea; horietatik, sei izan dira monumentuen berreskuratze orokorra. Proiektuak hautatzerakoan, zenbait alderdi hartu dira kontuan, paisaiaren garrantzirik hasi eta gure kultur imajinarioan duen munta sinbolikoraino doazenak, eta, gainera, ez da inoiz utzi alde batera esku-hartze horiek turismoan, merkataritzan eta zerbitzuetan duten eragina. Ikusiko denez, lan horietako batzuen konplexutasunak ekarri du aldi eta toki berean koordinatu behar izatea esku-hartze arkeologikoak, zaharberritze arkitektonikoa eta eraikinari atxikitako ondasun higigarrien zaharberritzea. Jarduketa integratzailea, bidea eman duena, gainera, ikerketaren alorrean aurrerapen handiak egiteko. Gure hirien hiri-trazadurak, gure arbasoen hileta-errituak, eraikuntzako teknika eta moduak, edota herri-debozioaren gora-behera adokazio batetik beste batera, gure historiaren alderdiak dira, fundazioari esker jende gehienak ezagutu dituenak, erakusketen eta argitalpen-ildo propio baten bitartez.

Izan ere, fundazioaren xede nagusietako bat da bere ahalegin guztia, ahal den neurrian, gizartearen onerako izatea, haren parte-hartzea lortze aldera bere ondarearen sustapenean eta babesean, ondarea zentzu zabalean hartuta. Hau da, errealitate material objektu-monumentuaz gain, kohesio-bide gisa eta talde bateko kide izatearen sentimenduaren oinarri gisa funtzionatzen duten balio, ikur, objektu artistiko eta ahozko nahiz idatzizko tradizio multzo bat ere hartzen duen kontzeptua. Kontzeptu bat, finean, oinarrizkotzat jotzen dena historia propioa ulertzeko, testuingururik itxuragabetu gabe. Baina, baita ere, aldi berean, oraina sendotzeko eta etorkizuna bultzatzeko. Garapen ekonomikoa sorrarazteko eta herri baten errealitatea turismoaren bidez kanpoaldera erakusteko gaitasuna duen elementu gisa. Hala ulertuta, ondarea da oinarri duen giza komunitatearen identifikazio, aberaste eta elkartasun faktorerik eraginkorrena. Labur esanda, errealitate materialen eta ukiezinen fusio bat, baloratzen, zaintzen

eta haren benetakotasuna eta osotasuna mantentzen dakien gizartearen hazkunderako baliagarria, sustraiak bota dituen gure ibilbide labur baina bizian zehar.

Hitzetatik gertakarietara igarotzen bagara, zaila da egokitasunik aurkitzea bilatutako helburuen eta erdietsitako lorpenen artean, eta horrek behartzen gaitu bai helburuak bai horiek lortzeko erabilitako administrazio-eredua berraztertzea.

Lan hori errazte aldera, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrazter ditzan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioaren helburuak eta xedeak, egungo beharrezanetara egokitze aldera, nabarmen aldatu baitira erakunde hori abian jarri zenetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bidezkoak diren aldaketak proposa ditzan, Nafarroako Kultura Kontseiluaren Ondare Batzordearen aholkularitzarekin, aurreikusitako helburuak, bereziki b) eta d) ataletakoak, lortze aldera.

3. Fundazioa gizartean txertatu eta gehiago irekitze aldera, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturaren arloan prestigio handikoak diren pertsonak sar ditzan patronatua, gaur egun ia osorik Gobernuo kidez bakarrik osatua baitago.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurtengo irailaren 30a baino lehen aurkez dezan Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean araudi berria, bidezkotzat jotzen dituen aldaketekin, 2014ko aurrekontuen aurreproiektua egiterako eraginkorra izan dadin.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2013ko aurrekontuetan manten dezan “Emakumeen elkarreentzako transferentziak” izeneko kontusaila.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita 2013ko aurrekontuetan manten dezan “Emakumeen elkarreentzako transferentziak” izeneko kontusaila.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du manten dezan “Emakumeen elkarreentzako transferentziak” izeneko kontusaila.

Nafarroako Gobernuaren 2013rako aurrekontuek emakumeak baztertzeko dituzte, egitez eta ez egitez.

Nafarroako 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuarekin batera doan sexu-inpaktuari buruzko txostenak –bost lerroko esaldi bat– jakinarazten du, soilik, proiektuak zenbait xedapen jasotzen dituela, sexu arrazoiengatik inpaktu positiboa sortzera bideratuak eta berdintasuna indartzen dutenak, ezberdintasunak murrizten saiatzen direnak eta emakumearen aldeko diskriminazio positiboak sustatzen dituztenak.

Azaldutakoarekin, urratu egin da CEDAWren (Emakumearen Aurkako Bazterketa Oro Ezabatzeari buruzko Hitzarmena, zeinaren protokoloa (1999) Espainiak berretsi baitzuen 2001ean) agindua, baita NBE-Emakumeak erakundearen bost helburuak ere; izan ere:

a. Ez dira behin ere aipatzen zenbatekoak; hau da, aurrekontuaren edukia: programa bakoitzean aurreikusten diren diru-sarrerak eta gastu-muga, eurotan adieraziak.

b. Ez ditu alderatzen abiapuntuko (2012) egoera sozial eta aurrekontuzkoak eta 2013rako zehazki aurreikusten direnak.

c. Mekanikoki adierazten du 2013ko aurrekontuak (berdintasunean eta gastu sozialean murrizketak egin arren), eragin “positiboa” izanen duela genero desberdintasunen murrizketan d. Ez ditu hautatzen emakumeen egoera sozialean eragin handiena duten programak, eta egoeraren eta helburuen gaineko datu oinarritzekoak aipatu gabe uzten ditu.

e. Ez dauka laburpen exekutiborik, eragin erreala areagotze aldera.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren 2013rako aurreikuspenek, berdintasun politikari dagokienez, ehuneko 64ko murrizketa agertzen dute berdintasunarekin loturiko jarduketetan (batez bestekoa baino askoz ere handiagoa), eta ehuneko 100ekoa emakumeen elkarreentzako eta berdintasun programak gauzatzen dituzten bestelako entitateentzako diru-laguntzetan. Murrizketa basati horrek dakar Nafarroako Gobernuak Nafarroako emakume-elkarteei ematen zizkien diru-laguntzen desagertzea, arriskuan jartzen du emakumeen elkarreentzako eta elkarreentzako feministek Nafarroan historikoki egin duten lana, eta, halaber, arriskuan jartzen du egiazko berdintasuneranzko aurrerabidea, ukaezina baita berdintasunaren arloan izandako aurrerapenak emakumeen ahalduntze prozesuaren eta mugimendu feministek eta emakumeek, beren elkarreentzako bidez emandako bultzadaren eskutik etorri direla.

Azpimarratu beharreko faktore larrigarria da Nafarroako Gobernuak Nafarroako emakume-elkarreentzako diru-laguntzetarako gastu-konpro-

misoa desagerrarazteaz gain, 2013rako aurrekontuetatik kendu egin dela, baita ere, "Emakumeen elkarreentzako transferentziak" izeneko kontusaila.

Gure ustez, azaldutako gertaerek ez dute justifikaziorik, eta, hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten diogu Legebiltzarreko Osoko Bilkurari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2013ko aurrekontuetan mantentzen dezan "Emakumeen elkarreentzako transferentziak" izeneko kontusaila eta 150.000 euroekin hornituz dezan, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintatzena Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea betetze aldera; izan ere, foru lege horren arabera, Nafarroako Gobernuak eta bere menpeko erakunde eta entitateek konpromisoa dute elkarreentzako generoko berdintasunaren mesedetan sustatzeko eta alor horretan lan egiten duten elkarreentzako laguntza ekonomikoa emateko.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an.

Foru parlamentariak: M.^a Victoria Arraiza Zorzano, Bikendi Barea Aiestaran, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano, Txema Mauleón Echeverría eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziazko protokolo bat presta dezan haurren pobrezia prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziazko protokolo bat presta dezan haurren pobrezia prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu protokolo urgente bat presta dezan haurren pobrezia prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko.

Hazten ari den langabezia egoeraren ondorioz, gero eta gehiago dira oinarrizko beharrezkoen aurre egiteko –hala nola elikagaiak, etxebizitzaren, argiaren edo berogailuaren ordainketa– zailtasunak dituzten familia unitateak.

Denboran mantentzen eta luzatzen ari den krisi ekonomiko larriaren ondorioz, gero eta pertsona gehiagori amaitzen ari zaizkie langabeziagatik prestazioak, eta ez dute lan merkatuan berriz ere sartzeko aukerarik ikusten.

Egoera honek eragin sakona du ehundura sozialean: murrizketa- eta doikuntza-politikek ahuldu egin dituzte gizarteratze prozesuak, eta horrek eragin oso zuzeneko izan du sektore ahulenetan. Gainera, sektore horiek nabarmen hazi dira.

Gehien kaltetutako taldeen artean, adingabeak aipatu behar dira. UNICEF erakundearen "Haurren ongizatea herrialde aberatsetan. Konparaziozko ikuspegia" izeneko azterlanean jasotako azken datuak kezkarriak dira; izan ere, horien arabera, Espainiako haurren pobrezia-tasa herrialde industrializatuak handienetakoa da, Letoniaren, Estatu Batuen eta Errumaniaren atzetik, 29 estatuen sailkapen batean. 2010ean, pobrezia adingabeen ehuneko 20rengan zuen eragina, 2000n baino bost puntu gehiago. Espainiako adingabeen ehuneko 20 errenta nazionalaren batez bestekoa-aren ehuneko 50 bakarrik jasotzen duten familieta-ko kide dira. Eta bi milioi haur bizi dira urteko 14.000 euroko diru-sarrerak dituzten familietan (bi

pertsona heldu eta bi seme-alabaz osatutakoak), UNICEFen arabera. Adierazle horiek erakusten dute egoera gero eta zailagoa dela familia askorentzat. Pobrezia tasa neurtzeko, EBk aztertzen ditu oinarritzotzat jotzen diren kontsumoko ondusunetako batzuk ezin eskuratu dituzten familiak: hipoteka, alokairua edo etxebizitzaren letrak ordaindu ahal izatea; neguan etxebizitzan tenperatura egokia mantendu ahal izatea; urtean gutxienez astebeteko oporraldia egin ahal izatea; bi egunetik behin haragia, oilaskoa edo arraina duen otordu bat egin ahal izatea; ustekabeko gastuei aurre egin ahal izatea; telefonoa izatea; koloreko telebista izatea; garbigailua izatea eta autoa izatea.

Zalantzarik gabe, Gizarte Zerbitzuen Sareak, Gizarteratze Atalak, mankomunitateek eta gizarte entitateek ezagutza zabala eta sakona dute Nafarroako pobrezia- eta ahulezia-errealitateaz. Badirudi jardunbide horiek indartzea eta horietan lan egitea Haurren Eskubideak betetzearen ikuspuntutik dela modurik egokiena prebentziorako, esku hartzeko eta detektatzen diren beharrianak arintzeko.

Zalantzarik gabe, haurrak eta nerabeak dira herrialde baten etorkizuna, eta, gure ustez, bereziki garrantzitsua da murrizketek eta doikuntzek ez eragitea herritarren sektore horri, kaltetuak ahulenak baitira eta haien bizi-ibilbidea hasieratik kalteztzen baita. Jakina da prebentzioa dela edozein Gobernuak abian jar dezakeen neurririk onena. Horregatik, uste dugu haurren pobrezia- aurkako borrokak tokia izan behar duela Nafarroako Gobernuak abian jartzen dituen politika guztietan.

Hori dela-eta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

1. Jarduketa-protokolo bat presta dezan lehenbailehen, oinarritzko gizarte zerbitzuekin, mankomunitateekin, ikastetxeekin eta gizarte entitateekin koordinatuta, haurren eta nerabeen ongizatea ziurtatzera zuzendua. Protokolo horretan ondoko alderdiak zehaztuko dira:

a.- Ziurtatuko da adingabe batek ere ez duela elikatzeko arazorik izanen. Horretarako, jantokibekak mantendu eta indartuko dira, eta beharrezkoa den elikagai-hornidura ziurtatuko da, oinarritzko gizarte zerbitzuek egiten duten jarraipenari loturik eta gizarte entitateekiko koordinazio estuan.

b.- Bidea emanen da zailtasun ekonomikoak dituzten familietako adingabeek udan (eskola jarduerarik ez baitago) parte hartu ahal izan dezaten kirol-, jolas- eta kultura-eremuetako jardueretan, lagungarriak baitira bizikidetzarako eta elkarreraginerako, garai goiztiarretan bazterketa ahal den neurrian saihestuz.

c.- Hezkuntza programak indartzea, bereziki eskola uzte goiztiararen aurka borrokatzera zuzendutako guztiak, eta prebentzio neurriak ezartzea Lehen Hezkuntzatik hasita.

d.- Oinarritzko gizarte zerbitzuak indartzea, erantzun arinagoa eman diezaieten gure gizartean areagotzen ari diren beharrianei.

e.- Gizarteratze Planaren abiarazpena azkartzea, Parlamentu honek bazterketari buruz eskatutako diagnosiari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko beharrianen mapa osatu eta neurri berariazkoak, urgenteak eta azkarrak ezartze aldera.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitie “Trelleborg Inepsa” enpresako langileei, enplegua mantentze aldera aurrera daramaten borrokan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die “Trelleborg Inepsa” enpresako langileei, enplegua mantentze aldera aurrera daramaten borrokan.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak lehen-

bailehen esku hartzea eta enpresarekiko bitartekaritzalana egitea, lanpostuak mantentzearen helburua lortze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela “Trelleborg Inepsa” enpresako zuzendaritzak akordio bat lor dezan langileekin, enpleguaren mantentzea ziurtatuko duena.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egonezina adierazten baitu Argentinak produktu fitosanitarioen sektorean duen jokabidea dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egonezina adierazten du Argentinak produktu fitosanitarioen sektorean duen jokabidea dela-eta, eta gogorarazten du landare-produkzioaren hobekuntza ez dela jarri behar gizakien eta animalien osasunaren eta ingurumenaren aurretik.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du, argi geratu arte produktu fitosanitarioek kalterik ez dutela eragiten, ez dadin erabil baliokidetasun printzipioa produktu berriak sartzeko, eta, edozein modutan ere, elikagai guztiak behar bezala etiketa daitezen, beharrezkoa den informazioarekin.

3. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du bereziketarik gabeko fumigazioak direla-eta, eta Argentinako Gobernuari eskatzen dio eten ditzan gizakien osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak diren praktika horiek eta lege berri bat

presta dezan, produktu horien erabilera arautuko duena eta gizakien osasuna babestuko duena.

4. Nafarroako Parlamentuak nazioarteari dei egiten dio irizpide eta metodo zaharkituak berrikustera eta, bereziki, ezinbestean, EBri eskatzen dio azter dezan glifosatoa birsailkatu eta/edo merkaturatik ateratzea, dakarren arriskuagatik, Pestizidei buruzko 107/2009 Erregelamenduak (EE) ezartzen duen moduan, eta berehalako berrazterketa bat agindu dezan, sektoreko industriak aurkeztutakoekin loturarik ez duten azterlan zientifikoetan oinarrituta.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez helaraz diezaien Argentinako Gobernuari eta Europar Batasunari.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu arbuiatzen duela Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa izenekoaren aurreproiektua, eta Espainiako Gobernua premiatzen baitu erretira dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berresten du arbuiatzen duela Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa izenekoaren aurreproiektua, eta Espainiako Gobernua premiatzen du erretira dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du babesten dituela hezkuntza-komunitateak (irakasleek, gurasoek eta ikasleek) aurreproiektu horren errefusa erakusteko maiatzaren 9rako deitutako mobilizazioak.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak jarduketarik aurreikusi ote duen osasun garraioaren funtzionamendu normala ziurtatzeko, NA-121-A errepidean izandako luiziak kaltetutako eskualdeetako osasun larrialdiei dagokienez.*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak jarduketarik aurreikusi ote duen osasun garraioaren funtzionamendu normala ziurtatzeko, NA-121-A errepidean izandako luiziak kaltetutako eskualdeetako osasun larrialdiei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero ondoko galdera aurkeztu du, horretarako egokientzat jotzen den batzordean ahoz erantzuna dakion:

Duela gutxi, NA-121 errepidea moztu dute luzi baten ondorioz, eta, dirudenez, hilabete bat eta bi bitartean egonen da trafikoa moztuta. Egoera horren ondorioz, ibilgailuak, bereziki larrialdiko osasun-garraiokoak, behartuta egonen dira Belateko portutik ibiltzera, eta horrek dakar 45 minututik ordubetera gehiago behar izatea joan-etorria egiteko larrialdi bat artatu behar den kasuan. Hori guztia kontuan hartuta, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du jarduketaren bat osasun garraioaren ohiko funtzionamendua ziurtatzeko kaltetutako eskualdeetako osasun larrialdiak artatzeari dagokionez?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikako langileen osasun arretari buruzko hitzarmenaren egoeraren gainekoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikako langileen osasun arretari buruzko hitzarmenaren egoeraren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín andreaki, Osasun Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroako Unibertsitate Klinikako langileen osasun arretari buruzko hitzarmenaren egoera indarrean dagoen kontratuaren iraupenari, kolektibo horretako kide kopuruari, 2013rako kontusailari eta abarrei dagokienez?

Osasun Departamentuak ba al du asmorik neurriren bat hartzeko kolektibo hori Osasunbidean sartze aldera, Parlamentu honetan iazko urriaren 11n mozio baten bidez onetsi zen moduan?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakitekoa zer berri duen Nafarroako Gobernuak Europar Batasuneko aurrekontuan gazteen enplegua sustatzeko sorturiko diru-horniduraren kudeaketari buruz, zeinetik Espainiak zati handi bat jasoko baitu.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer berri duen Nafarroako Gobernuak Europar Batasuneko aurrekontuan gazteen enplegua sustatzeko sorturiko diru-horniduraren kudeaketari buruz, zeinetik Espainiak zati handi bat jasoko baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoechea andreari:

Duela gutxi ezagutu dugunez, Europar Batasuneko aurrekontuetan aurrekontu-zuzkidura garrantzitsu bat sortu da gazteentzako enplegua sustatzeko, eta Espainiak zuzkidura horren zati handi bat jasoko du.

• Zer berri du Nafarroako Gobernuak funts horien kudeaketari buruz? Ba al daki Estatuak kudeatuko dituen ala autonomia erkidegoei transferituko ote dizkien haiek kudea ditzaten? Informaziorik izanez gero, jakina al da zein portzentaje kudeatuko duen Estatuak eta zein autonomia erkidegoek? Nafarroak ba al du zantzurik kontzeptu horrengatik jaso lezakeen zenbatekoari buruz?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola